

Bixente Atxa Eskola Politeknikoko zuzendari izendatu dute

2007/03/12

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Kontseilu Errektoreak Bixente Atxa izendatu du **Mondragon Unibertsitatearen Eskola Politeknikoko zuzendari**. Orain arte **Javier Retegui Albisuak** jardun du kargu horretan, baina Fagor Electrodomésticos Taldeko Industria Zuzendari eta I + Geko Zuzendari izendatu dute, eta Bixente Atxak ordeztuko du. Atxa izendatzeko erabakia aho batez hartu dute Unibertsitateko Kontseilu Errektoreko kideek .



Curriculuma

41 urte dituela, ezkondua dago eta semea eta alaba ditu. Bixente Atxak Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa egin zuen **Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoan**, eta Goi Ingeniaritza Elektronikoa **Bartzelonako Lull Unibertsitateko La Salle Ingeniaritza Eskolan**. Halaber, Elektronika eta Komunikazio Doktoregoa egin zuen, **Staffordshire-ko Unibertsitatean, Erresuma Batuan**.

Ingeniaritza Teknikoko ikasketak bukatu ondoren, I+G teknikaria izan zen Ulma Packaging (1987-1988) eta Hamburg-eko (Alemania) Rofin-Sinar Laser GmbH enpresetan. Gero, Britainia Handiko Staffordshire-ko Unibertsitatera joan zen ikertzaile, eta bertan zegoela, Elektronikoa eta Komunikazio Doktoregoa egin zuen, 1993an. Urte horretatik, 1993tik, Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoko elektronika-departamentuko irakaslea da. Unibertsitatean jorratutako ibilbide profesionalaren ardatzak bi izan dira: irakaskuntza, batetik, eta seinale eta komunikazioen teoriari lotutako teknologia-ikeruntza eta -berrikuntzako proiektuetako partaidetza.

Azken 4 urteotan, Mondragon **Goi Eskola Politeknikoko** Kontseilu Errektoreko eta **Mondragon Unibertsitateko** Kontseilu Errektoreko kidea izan da. Era berean, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentziaren (UNIQUAL) aditu-batzordeko kidea da.